

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Mandaitako hondakin uren isuria Iruña Okako eskualde HUAr lotzeko proiektu aldatua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko ekainaren 8an egindako bilkuran, 362/2021 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Mandaitako hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualde HUAr lotzeko proiektu aldatua” jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioen erantzuna. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 23ko 158/2021 Erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi zen “Mandaitako hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualde HUAr lotzeko proiektu aldatua”, eta hasierako onespina eman zitzaion proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta hura jendaurrean jartzeari.

Proiektua jendaurrean egon den aldi idatzizko alegazioak aurkeztu dituzte espedienteko 6/000, 7/000, 9/000, 16/000 eta 19/000 finken titularrek, bai eta Mandaitako Administrazio Batzarraren lehendakariak ere, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi ondoren, bere egiten ditu Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Behin alegazioei erantzunda, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onetsi behar da, zeina osatu baita kontuan hartuta aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna eta eragindako finken aprobetxamenduak, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adierazi behar da, desjabetu eta aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapidetzeari dagokionez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez izapidetu behar dela eta, ondorioz, presazko okupazioa adierazi behar da. Ildo horretan, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazi du Mandaitako oraingo saneamendu sistema, zeinak hobi septiko bat baitu osin batera isurtzen duena, ez dela eraginkorra Europako zuzentarauek ezartzen dituzten ingurumen helburuak betetzeko; horregatik, planteatzen da une honetan kolektore bat eraikitzea, grabitatez lan egingo duena eta herrigune horretako hondakin urak Olabarriko kolektore-hodi biltzailearekin lotuko dituen, zeina Iruña Okako arazketa lantegiraino iristen baita.

Era horretan, Subillako kareharrietako lurpeko ur masara gaur egun egiten den isurketa desagertuko da, Mandaitako hondakin urak Iruña Okako HUAn hobeto tratatuko direla bermatuko da arazketa sistema eraginkorragoa izango baita, efluentearen kalitatea hobetuko da eta, ondorioz, hobi septikoa dela eta gaur egun dagoen osasun publikoko arrisku egoera eta ingurumen arazoa konponduko dira.

Horrenbestez, Mandaitako hondakin urak behar bezala tratatuko direla bermatzeko, beharrezkoa da premiaz okupatzea “Mandaitako hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualde HUAr lotzeko proiektu aldatua”k eragindako ondasun eta eskubideak.

Premiazkotzat jotzeko izapiderako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz ere.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31.2 a) eta 36. artikulua; toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen eta lurralde historiako foru organoen arteko harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a.10 artikulua.

Eskumen hori egikaritzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan. Era berean, adierazi behar da erakunde honen barne eremuan Foru Gobernu Kontseilu hau dela organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurrekontu kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Erantzutea "Mandaitako hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualde HUAra lotzeko proiektu aldatua" k eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioei, haiek baietsiz edo ezetsiz Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak egindako txostenaren arabera.

Bigarrena. Onestea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina erabaki honen eranskinean jaso baita.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Laugarrena. Presazkotzat jotzea erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunen eta eskubideen okupazioa eta, hori dela eta, desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatzen duen presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 20.587,79 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuaren 50106.5300.6000001 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-1779/000.21.1.21), eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta zorpekin erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua Betearazteko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauaren 16.1.a) artikulua.

Zortzigarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Iruña Okako Udaletxeetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 15a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

MANDATAKO HONDAKIN UREN IURUA OKAKO ESKUALDE HUARA LOTZERKO PROIEKTU AL DATUA.  
PROYECTO MODIFICADO DE CONEXIÓN DE VERTIDOS DE AGUAS RESIDUALES DE MONTEVITE A LA EDAR COMARCAL DE IRUÑA DE OCA

Esp./Expte. 2021/1

FINKAREN ZK.	Nº FINCA	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERASINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>		EGUNA	ORDUA	
			POLIGONO	LURZATIA			BEHIN-BETIKOA	BATERAKO ZORTASUNA 3m			DEFINITIVA
	3000	ANGULO, MORALES, ALBERTO ANGULO, IRICIO, HOROS, DE M MAGDALENA ANGULO, IRICIO, ANGEL ANGULO, IRICIO, JESUS IBAREZ, ANGULO, IGNACIO ANGULO, DIAZ DE GARAYO, JESUS JOSE IBAREZ, ANGULO, PEDRO ANGULO, DIAZ DE GARAYO F. JAVIER ANGULO, DIAZ DE GARAYO, M ASUNCIÓN ANGULO, DIAZ DE GARAYO, M PURIFICACIÓN IBAREZ, ANGULO, BEGOÑA IBAREZ, ANGULO, HILARIO	2	345	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADJO	8	1.460	210	12/7/21	9:15
	16000	APILANEZ, RUIZ DE ZARATE, LUCIA	2	258	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	4	264	34	12/7/21	10:30
	18000	IBAREZ, ARRONDO, RICARDO PEREZ DE SAN ROMAN, MARTINEZ DE SOBIA, IRATXE	2	334	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	BARATZEA / HUERTA	-	81	-	12/7/21	11:45
	1000	ARRONDO, MOLINUETO, MARCELINA IBAREZ, ARRONDO, RICARDO	2	343a	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADJO	4	344	69	12/7/21	12:30
	8000	DIAZ DE OTALORA, DIAZ DE ARCAVA, LUCIA	2	348	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	358	19	12/7/21	13:15
	19000	OCHARAN, RUIZ DE ARCAUTE, M ROSARIO RUIZ DE ARCAUTE, M PURIFICACION OCHARAN, RUIZ DE ARCAUTE, JESUS OCHARAN, RUIZ DE ARCAUTE, M BLANCA OCHARAN, RUIZ DE ARCAUTE, FRANCISCO	2	449	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADJO	-	1.017	-	13/7/21	9:15
	17000	MARTINEZ DE MARGORTIA, ESNAOLA, RAFAEL MARTINEZ DE MARGORTIA, ESNAOLA, MIREN ARANTZAZU MARTINEZ DE MARGORTIA, ESNAOLA, INIGO	2	254	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	368	14	13/7/21	10:15
	2000	OLANO, MONTOYA, M MILAGROS	2	344	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	1.363	267	13/7/21	11:30
	13000	RUIZ DE AJUSTRI, ORTIZ DE GUZMAN, CLAUDIO	2	261d	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	187	-	13/7/21	12:15
	10000	SAEZ DE CORTAZAR, ORTIZ DE GUZMAN, HDROS. DE JESUS	2	360	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	702	41	13/7/21	13:00
	7000	IBAREZ, ARRONDO, LUIS MARIA	2	347	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADJO	-	997	190	13/7/21	13:45
	4000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MONTEVITE	2	662	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADJO	8	2.403	512	13/7/21	14:30
	5000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MONTEVITE	2	912	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	EITZEA / TERRAL	-	30	-	13/7/21	14:30
	6000	ORTIZ DE LUNA, ZULUETA, JAVIER ORTIZ DE LUNA, ZULUETA, M ALICIA ORTIZ DE LUNA, ZULUETA, M LOURDES ZULUETA, CASTILLO, M TERESA	2	346	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	12	6.110	1.133	14/7/21	9:15
	11000	URALDE, OLANO, MARGARITA URALDE, OLANO, M ANGELES	2	351	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	807	90	14/7/21	10:15
	12000	ULARTE, MARTIN, HDROS. DE J. ADRIAN	2	352	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	4	3.329	489	14/7/21	11:30
	14000	LOPEZ DE TORRE, RUIZ DE EGUINO, SAGRARIO JESUSA	2	398	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	179	-	14/7/21	12:15
	9000	LOPEZ DE GAUNA, SAENZ DE ORMIJANA, FRANCISCO	2	349	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	-	1.180	85	14/7/21	13:00
	15000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE OLLAVARRE	2	1009	IRUÑA OKA / IRUÑA DE OCA	IZENKORKO / IMPRODUCTIVO MENDIA / MONTE B	64	3323	2723	14/7/21	13:45